



LANGABEZIA-TASA % 5,8 IGO DA URTARRILEAN

**7.486 langabetu gehiago daude*

**Araba, % 7,2ko igoerarekin, izan da langabeziak gehien zigortutako lurraldea*

Urtarrila 7.486 langabetu gehiagorekin amaitu zen Euskadin, eta horrek berresten ditu hilabete horretarako egin ohi diren aurreikuspenak; izan ere, langabezia-igoera handiak izaten baitira hilabete horretan (9.456 langabetu gehiago 2009. urtean). **Horrek esan nahi du % 5,84ko igoera izan dela aurreko hilarekin alderatuta.**

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Enplegu, Prestakuntza eta Gizarteratzeko sailburuorde Javier Ruiz-en ustez, “abenduan kontratazio ugari amaitu izanak eta Enplegu Erregulazioko espediente berriak aurkeztu eta beste batzuk berritu izanak” azalduko luke, neurri handi batean, urteko lehenengo hilabetean langabeziak izan duen igoera.

2010eko urtarrila 135.687 langabaturekin amaitu zen, aurreko urte osoan baino 25.594 gehiago, eta % 23,25eko igoera izan da bi urteren artean, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari atxikitako Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak jasotako datuen arabera.

Javier Ruizen iritziz, nahiz eta oraindik etorkizunari buruzko zalantzak dauden, joera-aldaketa bat izateko itxaropenak indarrean dirau. “Epe ertainean ekonomiaren susperraldia berretsi litekeela pentsa dezakegu, gure inguruko herrialdeetan jadanik nabaritzen ari den bezala”, adierazi du Enplegu sailburuordeak.

Generoari erreparatuz gero, erregistratutako langabeziak eboluzio okerragoa izan zuen emakumeentzat; izan ere, % 7,3ko hazkundera izan zuen, gizonetzkoen % 4,4aren aldean. Azken urtean gizonetzkoen langabezia-tasa % 28,4 hazi da, eta emakumeena % 18,5.

Adin-taldeei dagokienez, azken hilabetean 25 urtetik beherako gazte langabetuen kopurua batez bestekoaren gainetik igo da; puntu bat, hain zuzen ere. Hala eta guztiz ere, 35 eta 44 urte bitartekoaren artean izan du langabeziak eboluziorik okerrera. Erregistratutako langabetuen % 36,3k 35 urtetik behera ditu, % 47,2k 35 eta 54 bitartean eta gainerako % 16,5ek 54 urte baino gehiago.

Lan bila dabiltzan langabetuen % 59,8 prestazioren bat kobratzen ari dira langabezia egoteagatik; ehuneko hori aurreko hilekoaren antzekoa da, eta aurreko urtekoa baino % 3,4 gorago dago. Kopuru absolututan, 2009ko urtarrilean 62.060 langabetuk kobratu zuten prestazioren bat; 2009ko abenduan 75.823k eta 2010eko urtarrilean 81.125ek.

Lurralde historikoen arabera, Arabak nozitu du, berriro, eragin handiena: 2009ko abenduarekin alderatuta, % 7,2ko igoera izan zuen langabeziak Araban, Gipuzkoan (+% 6,3) eta Bizkaian (+% 5,2) baino handiagoa.



Langabezia **sektore** guztietan hazi den arren, azken hilabeteen nabarmena da langabeziak zerbitzuen alorrean izandako hazkunde handia. Langabetuen % 19 industriatik dator, % 12,2 eraikuntzatik, % 11,6 merkatarizatik eta % 7,6 turismo eta ostalarizatik. Gizonezkoen langabezia industrian eta eraikuntzan sortzen da batez ere, eta emakumezkoetan merkatariztan, industrian eta ostalariztan.

EAEko langabezia-tasaren eboluzioa (2009ko urtarriletik 2010eko urtarrilera)

	GUZTIRA	HILABETEAN		URTE ARTEKOA	
		absolutua	erlatiboa	absolutua	erlatiboa
2009					
Urtarrila	110.093	9.456	9,4	28.700	35,26
Otsaila	115.653	5.560	5,05	32.334	38,81
Martxoa	121.090	5.437	4,7	38.502	46,62
Apirila	122.111	1.021	0,84	40.406	49,45
Maiatza	118.744	-3.367	-2,76	38.733	48,41
Ekaina	116.098	-2.646	-2,23	37.097	46,96
Uztaila	116.704	606	0,52	37.859	48,02
Abuztua	120.318	3.614	3,1	38.408	46,89
Iraila	123.394	3.076	2,56	40.397	48,67
Urria	125.589	2.195	1,78	37.752	42,98
Azaroa	127.454	1.865	1,49	32.716	34,53
Abendua	128.201	747	0,59	27.564	27,39
2010					
Urtarrila	135.687	7.486	5,84	25.594	23,25

EAEn erregistratutako langabezia. Sexuaren eta adinaren araberako bilakaera

	Langabezia				Gizonezkoak			Emak.			< 25			>24		
	Kop	% aurreko hilarekiko	Aurreko hilarekiko saldoa	% aurreko hilarekiko	Kop	% aurreko hilarekiko	% aurreko hilarekiko	Kop	% aurreko hilarekiko	% aurreko hilarekiko	Kop	% aurreko hilarekiko	% aurreko hilarekiko	Kop	% aurreko hilarekiko	% aurreko hilarekiko
2005-urt.	92.924	3,9	3.506	-4,4	39.591	2,1	-3,9	53.333	5,3	-4,8	9.158	7,7	-13,7	49.488	4,3	-7,1
2006-urt.	89.550	7,4	6.160	-3,6	37.785	5,2	-4,6	51.765	9,1	-2,9	9.005	14,2	-1,7	80.545	6,7	62,8
2007-urt.	80.685	5,9	4.482	-9,9	32.482	3,7	-14,0	48.203	7,4	-6,9	6.792	12,9	-24,6	73.893	5,3	-8,3
2008-urt.	81.393	9,1	6.811	0,9	33.309	7,2	2,5	48.084	10,5	-0,2	6.620	16,6	-2,5	74.773	8,5	1,2
2009-urt.	110.093	9,4	9.456	35,3	52.911	8,7	58,8	57.182	10,1	18,9	10.737	15,8	62,2	99.356	8,7	32,9
2010-urt.	135.687	5,8	7.486	23,2	67.944	4,4	28,4	67.743	7,3	18,5	12.659	6,8	17,9	123.028	5,7	23,8



GIZARTE-SEGURANTZA

Gizarte Segurantzako afiliazioak galdu egin du 2009ko apiriletik zeukan egonkortasuna; izan ere, % 1,26 jaitsi baita aurreko hilabetean.

Arabian (% 1,37) eta Bizkaian (% 1,35) murriztu da gehien afiliazioa; Gipuzkoan (% 1,21), berriz, datua zertxobait hobea izan da. Urte osoa erreferentziatzat hartuta, Araban murrizketa -% 2,09koa izan da; Bizkaian eta Gipuzkoa, berriz, -% 2,5aren inguruan ibili da.